



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduak 5

Vitoria-Gasteiz, 5 de diciembre de 2017

Lehendakaritza

“SEXUAL MINORITIES UGANDA”-RI EMAN DIO EUSKO JAURLARITZAK RENÉ CASSIN 2017 SARIA, AFRIKAN LGTBI KOLEKTIBOAREN GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEN EGITEN DUEN LANAGATIK

- **Epaimahaia elkartu egin da LGTBI komunitateak Ugandan bizi duen egoeraren salaketara eta sari horren bitartez haien eskubideak, segurtasuna eta duintasuna errespetatu daitezela eskatzen du**
- **Lehendakariak datorren abenduaren 11n emango du saria, abenduaren 10ean, igandean, ospatuko den Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela-eta**

Eusko Jaurlaritzak gaur jendarteratu du Giza Eskubideen René Cassin 2017 Saria "Sexual Minorities Uganda (SMUG)"-ri emango diola Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak.

Aldi honetan, Afrikako herrialde batzuetan eta Ugandan bereziki LGTBI komunitatearen egoera salatzeko zeregina nabarmendu du epaimahaia, baita haien eskubideak, segurtasuna eta duintasuna defendatzen betetzen duten lana ere.

“Sexual Minorities Uganda – SMUG” GKE 2004an sortu zuen Victor Mukasa aktibista transgeneroak, eta arlo desberdinetako 18 erakundek osatzen dute, lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualak diren pertsonak aintzatestearen eta haien duintasuna eta eskubideak errespetatzearen alde borrokan dihardutenek. René Cassin 2017 sarirako “SMUG” proposatu duen erakundea “Ortzadar LGTB” euskal elkartearen izan da, Euskadin helburu horiek berak bultzatzen diharduena.

LGTBI pertsonak bizi duten egoera bereziki dramatiko da Afrikako herrialde batzuetan. Herrialde askotan auzi penalak ezartzen dizkiete, eta biziarteko espetxealdia ere izan daiteke zigorra, Ugandaren kasuan, esate baterako. Testuinguru horretan, “Sexual Minorities Uganda”-k gune seguruak eskaintzen dizkie LGBTI pertsonari; ahalduz afektiboari eta identitarioari lotutako ekimenak sustatzen ditu; aholkularitza ematen du sexu-transmisiozko gaixotasunen aurrean; eta hedabideen eta salaketa sozialaren eremuan dihardu lanean.

lñigo Urkullu Lehendakariak emango du saria datorren abenduaren 11n, 16:30ean, Lehendakaritzan egingo den ekitaldi batean Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela-eta, abenduaren 10ean, igandean, ospatuko dena.

*** René Cassin Saria Eusko Jaurlaritzak sortu zuen jendaurrean aintzateste gure gizartean giza eskubideen balioak sustatzen nabarmen laguntzen diharduten pertsona fisikoen edo juridikoen lana. Sariaren izena René Cassin-i zor zaio; 1887an Baionan jaioa, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren inspiratzaile nagusitzat hartzen da, eta Bakearen Nobel Saridun izan zen 1968an.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

JAURLARITZAK 2017KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ONARTU DU, ETA ENPLEGU PUBLIKOKO 4.583 PLAZA ESKAINIKO DIRA EUSKAL ADMINISTRAZIO OSOAN

- Osasun-arloan, 3.335 plaza eskainiko dira Osakidetzan 2017. urterako, hezkuntza-arloan maisu-maistrentzako 798 lanpostu, Administrazio Orokorrean 150 lanpostu, eta segurtasun-arloan, berriz, Ertzaintzaren XVII. promozioiko 300 agenterentzako oposizioak
- Enplegu-eskaintza hori 2020ra bitarte onartuko diren beste askoren arteko lehena da. Gutxienez, 13.500 lanpostu eskainiko dira, eta gehienak txanda irekikoak izango dira
- Eusko Jaurlaritzaren ustez, aurrerantzean egingo diren enplegu publikorako eskaintzei esker enplegu publikoa finkatu eta egonkortu egingo da herritarrentzat oinarrizkoak diren zerbitzu guztietan

Gobernu Kontseiluak Euskal Administrazio Publiko osorako **“2017ko Enplegu Publikorako Eskaintza”** onartu du gaur. Guztira, 4.583 lanpostu eskainiko dira, txanda irekikoak zein barne-igoerako txandakoak. Sektoreen arabera, 2017ko deialdia honela banatuko da:

- **Osasuna**: Osakidetzako hainbat lanbide-kategoriatako 3.335 lanpostu.
 - ✓ Txanda irekian: 3.016 lanpostu.
 - ✓ Barne-igoerako txandan: 319 lanpostu.
- **Hezkuntza**: maisu-maistrentzako 798 lanpostu 2017an.
- **Segurtasuna**: Ertzaintzaren XVII. promozioiko 300 lanpostu.
- **EAEko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoak**: Administrari-laguntzaileen kidegoko eta mendekoen kidegoko 150 lanpostu
 - Txanda irekian: administrari-laguntzaileen kidegoko 40 lanpostu eta mendekoen kidegoko 70 lanpostu.
 - Barne-igoerako txandan: administrari-laguntzaileen kidegoko 40 lanpostu.

2018KO AZTERKETAK

Enplegu publikorako deialdi handi honetan parte hartzeko prozedura eta baldintzak sektore bakoitzean zehaztuko dira aurrerantzean: hezkuntza, osasuna, segurtasuna eta “Lakua”. Lanpostu guztien % 7 dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat gordeko dira, *Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorrean* ezarritakoari jarraikiz.

Azterketa guztiak 2018. urtetik aurrera egingo dira.

2020RAKO KONPROMISOA

Deialdi hau Eusko Jaurlaritzak onartutako eta dagoeneko Eusko Legebiltzarrerara igorritako **“2020ko Enplegu Plan Estrategikoan”** txertatuta dago. Plan horren barruan, Eusko Jaurlaritzak enplegu publikoko 13.500 lanpostu eskainiko ditu gutxienez enplegu publikorako eskaintzetan 2020. urtera bitarte:

- 1.500 lanpostu Euskadiko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan (Lakua)
- 5.000 lanpostu osasun-arloan
- 5.000 lanpostu hezkuntza-arloan
- 1.600 lanpostu segurtasun-arloan
- 400 lanpostu Justizia Administrazioan

Aurrerantzean egingo diren enplegu publikorako eskaintzei esker, enplegua finkatu eta egonkortu egingo da Eusko Jaurlaritzak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu publiko guztietan.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

JAURLARITZAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN POSTA BIDEZKO KOMUNIKAZIOEN ZERBITZUAK FINANTZATZEKO KONTRATAZIOA ONARTU DU 24,3 MILIOI EUROTAN

- **Zerbitzu honen baterako kontratazioari esker, kudeaketa eta eskala-ekonomiak baliatu daitezke**

Gobernu Kontseiluak **24.333.270,14 euroko** gastua eta kontratazioa baimendu du gaur, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren posta bidezko komunikazioen zerbitzua **2019. urtera arte** finantzatzeko. Baliabide publikoak hobeto kudeatzeko eta eskala-ekonomiak baliatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak zentralizatu egin du zerbitzu horren kontratazioa. Hauxe da bere aplikazio-eremua:

- ✓ Eusko Jaurlaritza
- ✓ Erakunde judizialak
- ✓ Ikastetxeak eta hezkuntza-erakundeak
- ✓ Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua
- ✓ Osakidetza, ospitaleak eta eskualdeak.
- ✓ Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
- ✓ Alokabide
- ✓ Herri Kontuen Euskal Epaitegia
- ✓ EITB
- ✓ Izenpe
- ✓ Visesa, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra
- ✓ Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
- ✓ Energiaren Euskal Erakundea
- ✓ Euskadiko Kirol Portuak
- ✓ OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
- ✓ Bizkaiko Parke Teknologikoa
- ✓ Arabako Parke Teknologikoa
- ✓ EJIE Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte
- ✓ SPRI
- ✓ IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

280.000 EURO BIDERATUKO DIRA 2020RA ARTE EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAREN INGURUMEN ALDERDIAK SUSTATZEKO

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Geogarapenekin (Euskal Kostaldeko Geoparkea Kudeatzeko Elkarte) hitzarmena sinatzeari, eremu horretan legegintzaldian zehar ingurumen-arloko jarduketak egiteko. Sailak, guztira, 280.000 euro bideratuko ditu, 2020 arte, urtean 70.000 euro, kostaldeko Zumaia, Deba eta Mutriku udalerriek partekatzen duten espazio horren kontserbazio- eta sustapen-jarduerak bultzatzeko eta garatzeko, kontuan hartuta kostaldeko *flysch*a dutela erakargarritasun nagusi.

Hitzarmenean aurreikusten diren jarduketak 2020 Geodibertsitatearen Estrategiaren barruan eta 2030 Euskadiko Biodibertsitatearen Estrategiaren barruan kokatzen dira, eta, besteak beste, geodibertsitatea kontserbatzea eta ondare geologikoaren erabilera jasangarria sustatzea dituzte helburu, bai eta ekosistema integratuak zaharberritzea eta horien balioa nabarmentzea ere, Euskal Kostaldeko Geoparkean.

Ogasuna eta Ekonomia

**GOBERNU KONTSEILUAK KREDITUAK GAITU DITU GOBERNANTZA
PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILARENTZAT, HEZKUNTZA
SAILARENTZAT ETA OSASUN SAILARENTZAT, 70.773.271 €-KO
ZENBATEKOAZ**

Gobernu Kontseiluak 70.773.271 euroko kredituak gaitzea onartu du gaur. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2017. urterako tributu itunduen ondoriozko bilketaren likidazio-aurreikuspenak onartu zituen, hasieran onartutakoa baino zenbateko handiagoan. Horren ondorioz, era berean, aurrekontuan kontsignatutako kredituak sostengatzeko foru-aldundien ekarpenei dagozkien benetako sarrerak ere urte honetarako aurrekontuan hasiera batean sartutakoak baino handiagoak dira.

Bilketa handiago horren ondorioz, egoki iritzi zaio Administrazio Orokorraren 2017. urterako aurrekontuan kreditu-gaikuntza bat egiteari, sail hauek dituzten kreditu-premia hauek finantzatzeko:

- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua: Itelazpiren kapital-zabalkuntza: 15.122.700 €.
- Hezkuntza: Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateen Programako kontratuak, UPV/EHUko ordainsari-osagarriak, Bekak eta Haurreskolak Partzuergoa: 50.650.571 €.
- Osasuna: Osakidetzako inbertsioak: 5.000.000 €.

Itelazpik 240 zentroko parkea kudeatzen du gutxi gorabehera. Hurrengo urteetarako Plan Estrategikoa abian jartzeko, eta sozietatea merkatu teknologikoan mugitzen dela kontuan izanik, hainbat inbertsio egin beharra dago, batzuk zaharkitutako sareak berritzeko eta bigarren dibidendu digitalerako besteak.

Hezkuntza Sailari dagokionez, bestalde, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin hartutako konpromisoak eta 2017/2018 ikasturteko unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko bekak ordaintzera bideratuko dira gaikuntzak. Gainera, Haurreskolak Partzuergoak 1.064.348,45 € jasoko ditu.

Osasunerako gaikuntzari dagokionez, Osakidetzak azpiegitura eta ekipamendu berrietarako hainbat inbertsio egingo ditu. Horrela, Urdulizko, Eibarko eta Txagorritxuko ospitaleetako ekipamenduak hobetuko dira.

Hezkuntza

2017KO EUSKADI IKERKETA SARIAREN DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2017ko Euskadi Ikerketa Saria arautzen eta deitzen duen Dekretua onartu du, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz.

Euskadi Ikerketa Sariak jarduera zientifikoa sustatzea du helburu nagusi, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikertzaileek eta talde kualifikatuek egiten dituzten ahaleginak sustatzea eta bultzatzea ere, betiere horien lanak oso eragin positiboa badu Euskadirako.

Euskadi Ikerketa Sariako hautagai izan daitezke doktore tituluaren jabe diren ikertzaileak. Horrez gain, hautagaiak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko ikerketa zentroyen batean aritu edo bertara atxikia izan beharko du, eta bere ibilbide zientifikoa Euskadin garatua izan, gutxienik 12 urtez, doktoregoa eskuratu ondoren. Era berean, Ikerbasque Fundazioak kontrataturiko irakasleen hautagaitzak ere onartuko dira, arestian aipaturiko sareko ikerketa zentroyen batera atxikita badihardute.

Hautagaitzak proposatu ditzakete bai erakunde zientifikoek, bai beste ikertzaile batzuek, eta baita hautagaiak berak ere. Hautagaitzak aurkezteko epea deialdia EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da, eta 2018ko urtarrilaren 24ra arte egongo da zabalik.

2017ko Euskadi Ikerketa Sariak 42.000 euroko hornikuntza du, ezin zatituzkoa eta bakarra, aurreko deialdietan baino %5 gehiago. Bi urtean behingo errotazioz deitzen da, jarraian azaltzen den eran: urte bikoitietan gaiak Zientzia eta Teknologiari buruzkoak izaten dira, eta urte bakoitietan berriz, oraingo kasu honetan bezala, Gizarte Zientziei eta Humanitateei buruzkoak.

Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitateak arlo hauek hartzen ditu: Gizarte eta Ekonomia Zientziak, Zientzia Juridikoak eta Humanitateak. Zientzia eta Teknologiaren modalitateak, berriz, Oinarrizko Zientziak, Bizitza eta Osasun Zientziak, Teknologia eta Arkitektura

Osasuna

BIODONOSTIA ETA BIOCRUCES OSASUN IKERKETA INSTITUTUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ONETSI DITU OSASUN SAILAK RIS3 EUSKADI ESTRATEGIAREN HEDAPENA INDARTZEKO

- **340.000 eurokoak dira diru-laguntzak eta I+G, berrikuntza eta living labs proiektuak babesten ditu osasunaren arloan**

Gobernu Kontseiluak, Osasun Sailak proposatuta, 340.000 euroko diru-laguntzak onetsi ditu gaur Biodonostia eta Biocruces Osasun Ikerketa Institutuetarako, osasun-arloko I+G+b indartzeko RIS3 Euskadi strategiaren barruan.

Osasun-arloko I+G+b indartzea funtsezko faktorea da bai Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2020k bai RIS3 berak ezartzen dituzten helburuak lortzeko. Hala, Osasun Ikerketa Institutuak funtsezko eragileak dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen barruan gaitasun berezia dutelako pazienteekin ikerketa klinikoak egiteko eta ezinbesteko eskakizunak betetzen dituztela erakutsi ahal izateko, hain zuzen ere osasun-sistemetan I+G+b prozesuan lortutako emaitzak erabiltzeko.

Gaur onetsitako laguntzak, batetik, biozientziak/osasuna arloko lehentasunezko eremuetan ikerketa eta berrikuntza biomedikoko proiektuak finantzatzeko eta, bestetik, produktuak garatu, testatu eta baliozkotzen lagunduko duten plataformak eta living lab-ak finantzatzeko izango dira.

Zehazki, Biodonostia Osasun Ikerketa Institutuarentzako diru-laguntzak (160.000 euro) bi alderdi babestuko ditu: zahartzearen eremuan ahultasunari heltzeko tresna berritzaileen garapena, eta berrikuntza kirurgikoa, lapPlangintza kirurgikoa 3D inprimaketa bidez sortutako bioereduak baliatuz.

Bere aldetik, Biocruces Osasun Ikerketa Institutuarentzako funtsak (180.000 euro) helburu hauetarako izango dira: Nerbio Sistemako Laborategia (Living Lab) eta Neuroerrehabilitazio plataformen garapena; Entzumen eta 3D Inprimaketa fabrikazioa; eta Endokrinologiari, Metabolismoari, Genetikari eta Gaixotasun arraroei lotutako proiektuak.

ZTBP 2020 hedatzeko Berrikuntza Funtsetik datozen diru-laguntza horiek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren inbertsioaren osagarri dira. Sailak, aurrean, 2017an, 4 milioi euro zuzendu ditu diru-laguntza kontzeptuan osasun-arloko ikerketa eta garapenerako proiektuak burutzeko. Gainera, laguntza horiei Bioarabako terapia aurreratuen eta medikuntza erregeneratiboaren eremuan eman dena gehitu behar zaie, Arabako nodo biofarmazeutikoa indartzearen, besteren artean hartzen dituen Praxis bezalako enpresak, UPV/EHUko zentro espezifikoak, eta Saiakuntza Klinikoen Unitatea ESI Araban.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK PERTSONA KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEAK SUSTATZEKO ETA BABESTEKO ERAKUNDEEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIA EGIN DU

Kontsumobideren bitartez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak deialdia egin du, pertsona kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatzeko eta babesteko toki-erakundeei eta hauek sustatutako erakundeei diru-laguntzak emateko 2018. ekitaldian.

Laguntza horiek erabiliko dira funtzionamendu-gastuetarako eta informazio- eta prestakuntza-jarduerak burutzeko, kontsumo-ikuskapeneko jardueren ondoriozko gastuetarako, eta ekipamendua ezartzeko, berritzeko, zabaltzeko edo lekuz aldatzeko lanen ondoriozko gastuetarako.

Horretarako, guztira, 958.570 euro emango dira laguntza moduan.

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK HIRIKO MERKATARITZAGUNEA PROGRAMA JARRI DU ABIAN

Hiriko Merkataritzagunea programaren azken helburua da hiriguneak indartzea hainbat arlo barne hartuta: merkataritza- eta turismo-sustapena, segurtasuna, hirigintza, trafikoa, bide publikoa, mantentzea eta garbiketa. Guztiek dagokien hiriguneen merkataritza-banaketako sektorean dute eragina eta erakunde publikoen zein pribatuen laguntza behar dute.

Helburu horretarako, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu- eta hiriko merkataritzako plataforma bakoitzerako kudeaketa-taldeak kontratatuzko gastuen % 90 finantzatzen du.

Helburu nagusiak:

- Hiriko merkataritzagune sendoa eta indartsua lortzea, hiria sustatzeko jardueraren eta merkataritza-jardueraren oinarritzko elementu gisa.
- Hiriko merkataritzaguneak merkataritza-erreferentzien abangoardian ezartzeko estrategiak garatzea.
- Merkataritza Plataforma epe laburrera autofinantzatzeko plan ekonomiko bat finkatzea.
- Hiriko merkataritzagunea etengabe dinamizatzea eta sustatzea.
- Gerentzia globalizatzailea.

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU KONTSEILUAK ZUZENeko LAU DIRU-LAGUNTZA ONETSI DITU KULTUR ETA SORMEN INDUSTRIAK BULTZATZEN DITUZTEN ENPRESENTZAT

- **Zenbait arlotan proiektu berriak sustatzea da helburua, diseinu-arloan, arkitektura-arloan, ikus-entzunezkoen arloan edo bideojokoan industrian, esate baterako.**

Gobernu Kontseiluak bere gaurko saioan lau diru-laguntza onetsi ditu beste horrenbeste enpresarentzat, Kultur eta Sormen Industrien (KSI) baitan proiektu berriak bultzatzen laguntzeko. Euskadiko RIS3 espezializazio adimenduneko estrategiaren baitan sartzen dira diru-laguntza horiek eta, guztira, 485.000 euro bideratuko dira Euskadiko KSlen baitako sektorea indartzen jarraitzeko. Kultura-arloaren mugetan kokatu izan diren sektoreak dira hauek, hala nola, diseinua, arkitektura, moda, ikus-entzunezkoen arloa, hizkuntzaren industria eta bideojokoak.

KSIlak bultzatzeko ekintzen artean, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak KSlen berrikuntza-programa garatu du 2017an, KSI Berritzaile 2017 izenekoa. Euskadiko arlo horretako enpresei zuzendua dago ekimen hori eta proiektu berriak gauzatu ahal izateko espazio berriak sortu eta garatzea du xede, honako hiru jarduera-ildo hauek oinarri hartuta:

1. Berrikuntza teknologikoa
2. Antolamendu-ereduaren berrikuntza
3. Enpresen gaikuntza finantzarioa

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Lehendakaritzaren eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren arteko lankidetzari esker garatu da programa hau. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi Plana 2020 (ZTBP Euskadi 2020) deritzon planaren barruan sartuko litzateke KSI Berritzaile 2017. Tecnalia, Vicomtech, Euskalit, Elkargi eta Innobasque-ren tankerako erakundeek parte hartzen dute programaren hiru jarduera-ildoen garapenean.

Testuinguru horretan, Gobernu Kontseiluak 245.000 euroko zuzeneko diru-laguntza onetsi du Tecnalia Fundazioarentzat, KSlen berrikuntza teknologikoa sustatzeko xedez. Era berean, arestian aipatutako lehenengo jarduera-ildoaren baitan, 120.000 euroko beste diru-laguntza bat onetsi da Vicomtech Fundazioarentzat.

Horrez gain, bigarren jarduera-ildoak bultzatzeko asmoz, hots, antolamendu-ereduaren eta enpresa-egituraren berrikuntza bultzatzeko asmoz, 40.000 euroko diru-laguntza onetsi da Euskalit Fundazioarentzat. Azkenik, Creadis 3 KSlen inguruko proiektutik “praktika ontzat” hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren BEAZ Sozietate Publikoak sustatu nahi duen KSlen inguruko ekimena, eta diru-80.000 euroko diru-laguntza bideratuko da horretara.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 20.000 EURO EMANGO DIZKIE DIRU-LAGUNTZATAN BARAKALDOKO BOST ABESBATZARI

- **Honako hauek jasoko dituzte diru-laguntzak: Barakaldoko Orfeoia, Schola Cantorum, Lagun Beti, Kantarte Gazteder eta Zigor Abesbatza.**

Barakaldoko bost abesbatzari zuzeneko bost diru-laguntza ematea onetsi da Gobernu Kontseiluaren gaurko bileran. 2017ko aurrekontuetan adostutakoaren arabera, 20.000 euro banatuko dira udalerrri horretako bost abesbatzaren artean, haien urteko kultur programa aurrera eramaten laguntzeko.

2017ko aurrekontuei egindako zuzenketa batetik sortuak dira diru-laguntza horiek. Izan ere, ez zegoen musika korala sustatzeko diru-laguntzen deialdirik eta, bestalde, laguntza ekonomikoa jasoko duten programak interesekoak dira. Hona hemen aipatutako diru-laguntzak jasoko dituzten bost abesbatzak:

- Sociedad Coral Orfeón Baracaldés: 4.000 euro.
- Schola Cantorum de San Vicente Mártir: 4.000 euro.
- Asociación Masa Coral Lagun Beti: 4.000 euro.
- Asociación Coral Kantarte Gazteder: 4.000 euro.
- Zigor Abesbatza: 4.000 euro.

Segurtasuna

ERTZAINTZAN JASOTZEN DIREN ORDAINSARIEN ETA KONPENTSAZIOEN ARAUBIDEA ONARTUTA

Gobernu Batzordeak, Estefania Beltrán de Heredia sailburuak hala proposatuta, zerbitzuan sortutako gastuen indemnizaziorako Ertzaintzak daukan erregimenaren aldaketa partzialerako dekretoa onartu du.

Dekretu honekin, apirilaren 11ko 2017/2 Legeak jasotzen duen aukera betearazi du Eusko Jaurlaritzak epe barruan, eta Ertzaintzako goi eskalako eta eskala exekutiboko pertsonalak egindako zerbitzuen hainbat indemnizaziori buruzko zalantzak argitu ditu.

Onatutako aldaketarekin, eta Kontrol Ekonomikorako Bulegoaren gomendioak aintzat hartuta, hainbat indemnizazio kontzeptu, nominan jasotako ordainak izatera pasatzen dira, beraz, tributagarri izatera ere bai.

Hori horrela, subkomisario, komisario, intendente eta superintendente postuetan zituzten ordainsari batzuk kendu (dietak, kilometroak eta ordezkari jantzia) eta 3.336 euroko aginpide osagarri bat finkatzen da, hamabi hilabetetan banatua. Horretarako, zerbitzuengatikoko indemnizazio dekretua eta ordainketen dekretua, biak aldatzen dira.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO CONCEDE EL PREMIO RENÉ CASSIN 2017 A “SEXUAL MINORITIES UGANDA”, POR SU DEFENSA DE LOS DERECHOS HUMANOS DEL COLECTIVO LGTBI EN ÁFRICA

- **El jurado se suma a la denuncia de la situación de la comunidad LGTBI en Uganda y llama, por medio de este premio, a respetar sus derechos, seguridad y dignidad**
- **El Lehendakari entregará el premio el próximo 11 de diciembre, con ocasión del Día Internacional de los Derechos Humanos, que se conmemora el domingo 10 de diciembre**

El Gobierno Vasco ha hecho pública hoy la concesión a “Sexual Minorities Uganda (SMUG)” del Premio René Cassin 2017 de Derechos Humanos, que otorga la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación.

En esta ocasión, el jurado ha destacado la tarea de denuncia de la situación de la comunidad LGTBI en algunos países de África y de Uganda en particular, y el trabajo en defensa del respeto de sus derechos, seguridad y dignidad.

La ONG “Sexual Minorities Uganda – SMUG” fue fundada en 2004 por el activista transgénero Victor Mukasa, y está integrada por 18 organizaciones de distinto signo que luchan por el reconocimiento y el respeto de la dignidad y derechos de las personas lesbianas, gays, bisexuales, transgénero e intersexuales. La entidad que ha propuesto a “SMUG” para el premio René Cassin 2017 ha sido la asociación vasca “Ortzadar LGTB” que promueve esos mismos fines en Euskadi.

La situación de las personas LGTBI en algunos países de África es especialmente dramática. En muchos países están perseguidas penalmente, incluso -como en el caso de Uganda- con penas que pueden llegar a la cadena perpetua. En este contexto, “Sexual Minorities Uganda” brinda espacios seguros a las personas LGBTI; promueve iniciativas vinculadas al empoderamiento afectivo e identitario; asesora frente a las enfermedades de transmisión sexual; y trabaja en el ámbito de los medios de comunicación y la denuncia social.

El premio será entregado por el Lehendakari Iñigo Urkullu en un acto que se celebrará en Lehendakaritza el lunes 11 de diciembre, a las 16:30h con ocasión del Día Internacional de los Derechos Humanos, que se conmemora el domingo 10 de diciembre.

*** El Premio René Cassin fue creado por el Gobierno Vasco con el fin de reconocer públicamente la labor de personas físicas o jurídicas que con su actuación contribuyan de manera destacada a la promoción de los valores de los derechos humanos en nuestra sociedad. El premio debe su nombre a René Cassin, nacido en Bayona en 1887, considerado el principal inspirador de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y merecedor del Premio Nobel de la Paz en 1968.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO APRUEBA LA “OPE 2017” CON 4.583 PLAZAS DE EMPLEO PÚBLICO PARA EL CONJUNTO DE LA ADMINISTRACIÓN VASCA

- **Salud** eleva a 3.335 el número de plazas en Osakidetza para el año 2017, Educación asciende hasta 798 los puestos de maestras y maestros, la Administración General convoca 150 plazas, y Seguridad compromete, este año, oposiciones para 300 nuevos agentes de la XVII promoción de la Ertzaintza
- La aprobación de esta oferta de empleo es la primera de otras tantas que se sucederán hasta 2020, con un mínimo de 13.500 plazas, la mayoría, de turno libre
- El Gobierno Vasco cree que las OPEs que se desarrollarán a partir de ahora permitirán la consolidación y estabilización del empleo público en todos los servicios esenciales para la ciudadanía

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la **“Oferta Pública de Empleo de 2017”** para el conjunto de la Administración Pública Vasca. En total, saldrán a OPE 4.583 plazas, tanto de turno libre como de promoción interna. Por sectores, la convocatoria 2017 se distribuirá de la siguiente manera:

- **Salud:** 3.335 plazas de diversas categorías profesionales de Osakidetza.
 - ✓ **Turno Libre:** 3.016 plazas.
 - ✓ **Promoción Interna:** 319 plazas.
- **Educación:** Eleva en 2017 hasta las 798 plazas de maestras y maestros.
- **Seguridad:** 300 plazas de la promoción número XVII de la Ertzaintza.
- **Administración General de la CAE y sus organismos autónomos:** 150 plazas del cuerpo auxiliar administrativo y subalterno.
 - ✓ **Turno Libre:** 40 plazas del cuerpo auxiliar administrativo y 70 del cuerpo subalterno.
 - ✓ **Promoción Interna:** 40 plazas del cuerpo auxiliar administrativo.

EXÁMENES 2018

El procedimiento y los requisitos para acceder a esta gran convocatoria de empleo público se concretarán, a partir de ahora, en cada uno de los sectores: educación, salud, seguridad y “Lakua”. El 7% de las plazas totales se reservarán a personas con diversidad funcional, tal y como marca la *Ley General de Derechos de las Personas con Discapacidad y de su Inclusión Social*.

Todos los exámenes se realizarán a partir del año 2018.

COMPROMISO 2020

Esta convocatoria es parte del **“Plan Estratégico de Empleo 2020”** aprobado por el Gobierno Vasco y remitido, ya, al Parlamento Vasco. En él se eleva hasta las 13.500 el número mínimo de plazas de empleo público que el Gobierno Vasco sacará a OPE hasta el año 2020:

- 1.500 plazas en la Administración General de Euskadi y organismos autónomos (Lakua)
- 5.000 plazas en Salud
- 5.000 plazas en Educación
- 1.600 plazas en Seguridad
- 400 plazas en la Administración de Justicia

Las sucesivas ofertas de empleo público que se desarrollarán a partir de ahora, permitirán la consolidación y estabilización del empleo en todos los servicios públicos que ofrece el Gobierno Vasco a la ciudadanía.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO AUTORIZA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE COMUNICACIONES POSTALES DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI POR 24,3 MILLONES DE EUROS

- La contratación conjunta de este servicio permite aprovechar las economías de escala y de gestión

El Consejo de Gobierno ha autorizado hoy la contratación y el gasto de **24.333.270,14 euros** para financiar el servicio de comunicaciones postales de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi **hasta el año 2019**. En aras a una mejor gestión de los recursos públicos y para aprovechar las economías de escala, el Gobierno Vasco ha centralizado la contratación de este servicio con el siguiente ámbito subjetivo:

- ✓ Gobierno Vasco
- ✓ Organismos judiciales
- ✓ Centros escolares y organismos educativos
- ✓ Lanbide, Servicio Vasco de Empleo
- ✓ Osakidetza, hospitales y comarcas.
- ✓ Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
- ✓ Alokabide
- ✓ Tribunal Vasco de Cuentas Públicas
- ✓ EITB
- ✓ Izenpe
- ✓ Visesa, Vivienda y Suelo de Euskadi
- ✓ Agencia Vasca de Protección de Datos
- ✓ Ente Vasco de la Energía
- ✓ Euskadiko Kirol Portuak
- ✓ OSALAN, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales
- ✓ Bizkaiako Parke Teknologikoa
- ✓ Arabako Parke Teknologikoa
- ✓ EJIE Sociedad Informática del Gobierno
- ✓ SPRI
- ✓ Sociedad Pública de gestión ambiental IHOBE

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

SE DESTINAN 280.000 EUROS PARA IMPULSAR EL GEOPARQUE DE LA COSTA VASCA EN ASPECTOS MEDIOAMBIENTALES HASTA 2020

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno a la firma de un convenio por parte del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco con Geogarapen (Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca) para la realización de distintas actuaciones medioambientales en este ámbito a lo largo de la legislatura. El Departamento destinará un total de 280.000 euros hasta 2020, a razón de 70.000 euros anuales, a impulsar y desarrollar actividades de conservación y promoción de este espacio compartido por los municipios costeros de Zumaia, Deba y Mutriku y que tiene como gran atractivo el *flysch* costero.

Las actuaciones previstas en el convenio se enmarcan en la Estrategia de Geodiversidad 2020 y en la Estrategia de Biodiversidad del País Vasco 2030, que contemplan entre otros objetivos la conservación de la geodiversidad y la promoción del uso sostenible del patrimonio geológico, así como la restauración y puesta en valor de los ecosistemas integrados, total o parcialmente, en el ámbito del Geoparque de la Costa Vasca

Hacienda y Economía

EL CONSEJO DE GOBIERNO HABILITA CRÉDITOS PARA LOS DEPARTAMENTOS DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO, EDUCACIÓN Y SALUD POR IMPORTE DE 70.773.271€

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la habilitación de créditos por valor de 70.773.271 euros. El Consejo Vasco de Finanzas aprobó las previsiones de liquidación de la recaudación por tributos concertados para 2017, por una cuantía superior a la aprobada inicialmente, lo que ha supuesto, a su vez, que los ingresos efectivos correspondientes a las aportaciones de las diputaciones forales al sostenimiento de los créditos consignados en el presupuesto sobrepasen a los inicialmente presupuestados para este año.

Como consecuencia de esa mayor recaudación, se ha considerado oportuno realizar una habilitación de crédito en el presupuesto de la Administración General para 2017, para financiar las siguientes necesidades de crédito de los siguientes Departamentos:

- Gobernanza Pública y Autogobierno: ampliación de capital de Itelazpi: 15.122.700€.
- Educación: contratos Programa Universidades del País Vasco, complementos retributivos UPV/EHU, Becas y Haurreskola Partzuergoa: 50.650.571€.
- Salud: inversiones Osakidetza: 5.000.000€.

Itelazpi gestiona un parque de aproximadamente 240 centros y para poner en marcha el Plan Estratégico de los próximos años y dado que la sociedad se mueve en un mercado de carácter tecnológico, se hace necesario acometer una serie de inversiones, unas para renovar redes obsoletas y otras segundo dividendo digital.

Por su parte, en lo referente al departamento de Educación, las habilitaciones serán destinadas pagar los compromisos asumidos, por una parte, con la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Universidad de Deusto y Mondragón Unibertsitatea y, por otra parte, de las becas universitarias y no universitarias de curso 2017/2018. Además, el Consorcio de Haurresloak recibirá 1.064.348,45€.

En cuanto a la habilitación para Salud, Osakidetza acometerá diversas inversiones para nuevas infraestructuras y equipamientos. Así, se mejorarán los equipamientos de los hospitales de Urduliz, Eibar y Txagorritxu.

Educación

CONVOCATORIA PARA EL PREMIO EUSKADI DE INVESTIGACIÓN 2017

El Consejo de Gobierno ha aprobado, en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, el Decreto por el que se regula y convoca el Premio Euskadi de Investigación 2017, con el fin de fomentar la actividad científica, en su modalidad de Ciencias Sociales y Humanidades.

El Premio Euskadi de Investigación tiene por objeto fomentar la actividad científica, y estimular, promocionar y valorar los esfuerzos de investigadores y equipos cualificados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo trabajo haya ejercido una influencia positiva destacada en Euskadi.

Podrán optar al Premio Euskadi de Investigación aquellos investigadores e investigadoras que estén en posesión del título de doctor o doctora. Además, la persona candidata deberá pertenecer o estar adscrita a un centro de investigación acreditado como agente de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI), y haber desarrollado al menos durante 12 años su carrera científica en Euskadi a partir de la obtención del doctorado. También se admitirán candidaturas de profesores o profesoras Ikerbasque contratados por la Fundación Ikerbasque y que estén adscritos a algún centro dentro de la RVCTI.

Las candidaturas podrán ser propuestas por entidades científicas, por otros científicos o científicas o por la propia persona candidata. El plazo de presentación de candidatura se abrirá a partir del día siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 24 de enero de 2018.

El Premio Euskadi de Investigación, cuenta con una dotación económica única e indivisible de 42.000 euros, un 5% más que en las anteriores ediciones. Este reconocimiento tiene una rotación bienal establecida de la siguiente forma: en los años pares la temática versará sobre Ciencia y Tecnología, y en los años impares, como es el caso de esta convocatoria, sobre Ciencias Sociales y Humanidades.

La modalidad de Ciencias Sociales y Humanidades incluye las áreas de Ciencias Socioeconómicas, Jurídicas y Humanidades, mientras que la modalidad de Ciencia y Tecnología se ocupa de las áreas de Ciencias Básicas, Ciencias de la Vida y de la Salud, Tecnologías y Arquitectura.

Salud

EL DEPARTAMENTO DE SALUD APRUEBA AYUDAS A LOS INSTITUTOS DE INVESTIGACIÓN SANITARIA BIODONOSTIA Y BIOCUCROS PARA REFORZAR EL DESPLIEGUE DE LA ESTRATEGIA RIS3 EUSKADI

- **Las ayudas económicas, de 340.000 euros, apoyan proyectos de I+D, innovación y desarrollo de living labs en salud**

El consejo de Gobierno ha aprobado hoy, a propuesta del departamento de Salud, subvenciones por un importe global de 340.000 euros a los Institutos de Investigación Sanitaria Biodonostia y Biocruces con el objetivo de reforzar el ámbito de I+D+i en salud dentro de la estrategia RIS3 Euskadi.

El refuerzo de la I+D+i sanitaria es un factor clave para lograr los objetivos que tanto el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2020 como la propia RIS3 establecen y, en este sentido, los Institutos de Investigación Sanitaria son agentes esenciales dentro de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación por su capacidad única para realizar investigación clínica con pacientes y poder demostrar el cumplimiento de las exigencias indispensables para emplear en los sistemas sanitarios los resultados obtenidos en el proceso de I+D+i.

Las ayudas aprobadas hoy se van a destinar por una parte a financiar proyectos de investigación e innovación biomédica en ámbitos prioritarios dentro del área de biociencias-salud y, por otra, a financiar plataformas y living labs que contribuyan al desarrollo, testeo y validación de productos.

Concretamente, la ayuda al Instituto de Investigación Sanitaria Biodonostia (de 160.000 euros) va a apoyar dos aspectos: el desarrollo de instrumentos innovadores para el abordaje de la fragilidad, dentro del área de envejecimiento, y la innovación quirúrgica, más específicamente, lapPlanificación quirúrgica a través de biomodelos creados mediante impresión 3D.

Por su parte, los fondos para el Instituto de Investigación Sanitaria Biocruces (180.000 euros) se van a destinar al desarrollo del Laboratorio de Sistema Nervioso (Living Lab) y la plataforma de Neurorehabilitación; a la fabricación Aditiva e Impresión 3D; y a proyectos de Endocrinología, Metabolismo, Genética y Enfermedades raras.

Estas ayudas, procedentes del Fondo de Innovación para el despliegue del PCTI 2020, complementan la inversión del Departamento de Salud del Gobierno Vasco que, este año 2017, ha destinado 4 millones de euros en concepto de ayudas económicas a proyectos de investigación y desarrollo en salud. Asimismo, se suman al apoyo en el ámbito de terapias avanzadas y medicina regenerativa en Bioaraba, contribuyendo a reforzar el nodo biofarmacéutico en Álava que cuenta, entre otros, con empresas como Praxis, centros específicos en la UPV/EHU, además de la Unidad de Ensayos Clínicos en la OSI Araba.

Turismo, Comercio y Consumo

EL DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO CONVOCA LAS AYUDAS A ENTIDADES PARA LA PROMOCIÓN Y DEFENSA DE LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS CONSUMIDORAS

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, a través de Kontsumobide, ha convocado las ayudas económicas destinadas a entidades locales y entidades promovidas por ellas para la promoción y defensa de los derechos e intereses de las personas consumidoras y usuarias para el ejercicio 2018

Las ayudas se destinan a los gastos de funcionamiento y la realización de actividades de información y formación, los gastos derivados de actividades de inspección de consumo y aquellos derivados de la instalación, reforma, ampliación de equipamiento o cambio de ubicación.

Para este fin se concederá una cuantía total de ayudas de 958.570 Euros.

EL DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO PONE EN MARCHA EL PROGRAMA DE CENTRO COMERCIAL URBANO

El programa de Centro Comercial Urbano tiene como objetivo final revitalizar los centros urbanos abarcando distintas áreas: promoción comercial y turística, seguridad, urbanismo, tráfico, vía pública, mantenimiento y limpieza, afectando todas ellas al sector de distribución comercial de los centros urbanos en cuestión y precisando la cooperación tanto de entes públicos como de entidades privadas.

A tal efecto desde el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, se financia el 90% de los gastos derivados de la contratación de los equipos gerenciales de cada una de las plataformas de comercio urbano de las capitales de la Comunidad Autónoma Vasca.

Los Convenios tienen como objetivos principales, los siguientes:

- La consecución de un Centro de Comercio urbano sólido y consolidado como elemento básico en la actividad comercial y promocional de la ciudad.
- El desarrollo de estrategias dirigidas a posicionar los Centros de Comercio Urbano en la vanguardia de las referencias comerciales.
- El establecimiento de un plan económico encaminado a la autofinanciación a corto plazo de la Plataforma de Comercio.
- La dinamización y promoción continua del Centro Comercial Urbano.
- Gerencia globalizadora.

Cultura y Política Lingüística

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA CUATRO SUBVENCIONES DIRECTAS PARA EMPRESAS QUE IMPULSAN LAS INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS

- **El objetivo es generar nuevos proyectos en ámbitos como el diseño, la arquitectura, la moda, el audiovisual o la industria de los videojuegos.**

El Consejo de Gobierno ha aprobado cuatro partidas de subvenciones para otras tantas empresas con el fin de impulsar proyectos en el ámbito de las Industrias Culturales y Creativas (ICC). Estas ayudas se enmarcan en el ámbito de la estrategia de especialización inteligente de Euskadi RIS3 y en total sumarán una cuantía de 485.000 euros. El objetivo de estas subvenciones es continuar impulsando el fortalecimiento de los sectores comprendidos en las ICC vascas, ámbitos situados tradicionalmente en los márgenes de lo que se entiende por cultura como el diseño, la arquitectura, la moda, el audiovisual, las industrias de la lengua o los videojuegos, entre otros.

Dentro de las acciones de impulso de las ICC, el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco ha desarrollado en 2017 un programa de innovación bajo el nombre KSI Berritzaile 2017. Esta iniciativa está dirigida a las empresas del ámbito de las ICC en Euskadi, y el objetivo es crear y desarrollar espacios de oportunidad para nuevos proyectos en tres ejes de actuación:

1. Innovación tecnológica
2. Innovación de modelo organizativo
3. Capacitación financiera de empresas

Este programa es posible gracias a la colaboración entre los departamentos de Cultura y Política Lingüística, Lehendakaritza y Desarrollo Económico e Infraestructuras. KSI Berritzaile 2017 se enmarca dentro del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2020 (PCTI Euskadi 2020); entidades como Tecnalia, Vicomtech, Euskalit, Elkargi e Innobasque participan en el desarrollo de los tres ejes de actuación del mismo.

En este contexto, el Consejo de Gobierno ha aprobado una subvención directa de 245.000 euros a la Fundación Tecnalia con el objetivo de fomentar la innovación tecnológica vinculada a las ICC. En esta misma línea, dentro del primero de los ejes, se ha aprobado otra subvención de 120.000 euros para la Fundación Vicomtech.

Además, con el fin de impulsar el segundo de los ejes, es decir, la innovación del modelo organizativo y la estructura empresarial, se ha aprobado una subvención de 40.000 euros para la Fundación Euskalit. Finalmente, desde la iniciativa Creadis 3 para el impulso de las ICC se ha aprobado una subvención de 80.000 euros para BEAZ, Sociedad Pública de la Diputación Foral de Bizkaia, con el fin de impulsar uno de sus proyectos en este ámbito.

Cultura y Política Lingüística

EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA OTORGA 20.000 EUROS EN AYUDAS A CINCO AGRUPACIONES CORALES DE BARAKALDO

- **Orfeón Baracaldés, Schola Cantorum, Lagun Beti, Kantarte Gazteder y Coral Zigor se beneficiarán de las ayudas.**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión otorgar cinco subvenciones directas a grupos corales de la localidad de Barakaldo. Según lo acordado en los presupuestos de 2017, se distribuirán 20.000 euros entre cinco agrupaciones corales de esta localidad con el fin de colaborar en el desarrollo de su programa cultural anual.

Estas subvenciones tienen su origen en una enmienda a los presupuestos de 2017 y se justifica por la inexistencia de una convocatoria de ayudas para el fomento de la música coral, así como por el interés de los programas que se apoyarán económicamente. Las cinco corales que recibirán las respectivas ayudas son las siguientes:

- Sociedad Coral Orfeón Baracaldés: 4.000 euros.
- Schola Cantorum de San Vicente Mártir: 4.000 euros.
- Asociación Masa Coral Lagun Beti: 4.000 euros.
- Asociación Coral Kantarte Gazteder: 4.000 euros.
- Coral Zigor: 4.000 euros.

Seguridad

APROBADO EL DECRETO DE MODIFICACIÓN PARCIAL DE RÉGIMEN DE RETRIBUCIONES Y COMPENSACIONES PERCIBIDAS EN LA ERTZAINZA

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la Consejera de Seguridad, Estefanía Beltrán de Heredia, ha aprobado el decreto de modificación parcial del régimen de indemnizaciones por razón de servicio percibidas en la Ertzaintza.

Con dicho decreto, el Gobierno Vasco desarrolla la disposición recogida en la Ley 2/2017, de 11 de abril, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la CAV para el ejercicio 2017, y clarifica la naturaleza de algunas de las indemnizaciones por razón de servicio del personal de las escalas superior y ejecutiva de la Ertzaintza.

Con la modificación aprobada, y atendiendo a las recomendaciones de la Oficina de Control Económico, determinados conceptos indemnizatorios pasan a ser conceptos retributivos recogidos en nómina y sujetos a tributación.

Por ello se eliminan algunas compensaciones (dietas, kilometraje y ropa de representación) que disponían singularmente los puestos de superintendente, intendente, comisario y subcomisario y se establece un componente de jefatura para tales puestos de 3.336 euros, referidas a doce mensualidades. A tal fin se modifican tanto el decreto de indemnizaciones por razón de servicio como el decreto de retribuciones.